

SEBEA metodologia

Kidetasun-multzoetako ideiak laburtzeko eta batzeko esaldiak edo txartelak zehatz-mehatz nola sortu erakutsi nahi digu SEBEA metodologiak (ikus [post-it teknika](#))

Hau oso urrats inportantea da bere asmoa baita azaldutako ideia guztien artean aukeraketa egitea behin betikoetara iristeko.

SEBEA hitz hauen sigla da:

SAILKATU: Azaldutako ideia guztiei dagokien maila aplikatu behar zaie hasierako esaldian: estrategia batetaz ari bagara, ideia orokor bat dagokio eta ekintza-plana bada, ideia zehatza dagokio.

ERANTSI: Ondo begiratu behar da, hasierako ideietan agertu arren, kidetasunak sailkatzeko prozesuan jaso gabe geratu ote den ideiarenekin bat. Kontu handiz jardun behar da gerta litekeelako azkenean taldeak berak erabakita uztea ideia hori ez zela hain inportantea.

BATU: Gai berberak edo antzeko gaiak tratatzen dituzten ideiak batu egin behar dira. Urrats hau ere garrantzizkoa da eta konplikatu, gainera. Kidetasuna erakusten duten txartel asko agertzen badira elkarri lotuta, zailagoa izango da beren arteko erlazioak finkatzea.

EZABATU: Behin baino gehiagotan edo antzera emanda agertzen diren esaldiak kendu egin behar dira, eta bat bakarra utzi. Errepikatutako ideiek nahasmena besterik ez dakarte, ez dute ezertan laguntzen eta ez dakarte onurarik, oztopo besterik ez dira.

ANTOLATU DENA: Azkenean, sailkatu, erantsi, batu edo ezabatu behar diren esaldiak zehaztutakoan, berridatzi behar dira esaldiak. Hortik sortuko dira behin betiko esaldiak. Gutxi gorabehera txartel kopuruak (esaldiak) izan beharko luke taldekide kopurua +/-2.